# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 6027

*515/2021 EBAZPENA, azaroaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den 2021eko azaroko zikloaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra, Kudeaketako Epaimahaiari atxikitako A2 lanbide-taldeko Goi-mailako Teknikariak kategoria hauetarako: Goi-mailako Teknikari Juridikoa, Informatikako Goi-mailako Teknikaria, Ekonomiako Goi-mailako Teknikaria, Antolaketako Goi-mailako Teknikaria, Euskararen Normalkuntzarako Goi-mailako Teknikaria eta Administrazioko eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.*

2019ko azaroaren 27ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoaren oinarrizko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduretarako oinarriak onartu ziren, 2019ko urriaren 29ko Osasuneko Mahai Sektorialean SATSE, SME eta UGT sindikatuekin Akordioa sinatu ondoren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplika dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpena, zeinak deitu egiten duen Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra Kudeaketako Epaimahaiari atxikitako A2 lanbide-taldeko Goi-mailako Teknikariak kategoria hauetarako: Goi-mailako Teknikari Juridikoa, Informatikako Goi-mailako Teknikaria, Ekonomiako Goi-mailako Teknikaria, Antolaketako Goi-mailako Teknikaria, Euskararen Normalkuntzarako Goi-mailako Teknikaria, Administrazioko eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria, eta Liburuzaina, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1. atalean xedatutakoari jarraituz, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzako webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra ezartzeko 2021eko azaroko zikloaren destinoen eskaintza Kudeaketako Epaimahaiari atxikitako A2 lanbide-taldeko Goi-mailako Teknikarien kategoria hauetarako:

– Goi-mailako Teknikari Juridikoa.

– Informatikako Goi-mailako Teknikaria.

– Ekonomiako Goi-mailako Teknikaria.

– Antolakuntzako Goi-mailako Teknikaria.

– Euskararen Normalkuntzako Goi-mailako Teknikaria.

– Administrazioko eta kudeaketako Goi-mailako Teknikaria.

Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik, Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez deitutako zikloan data hauek hartu dira erreferentziatzat: 2021eko abuztuaren 31, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko; eta 2021eko abenduaren 23a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

2021eko azaroko ziklo honi dagokionez, lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenean araututakoari jarraikiz, 2021eko abenduaren 23ra arte.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2021eko azaroko ziklo honetan, 2021eko abenduaren 23ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2021eko azaroko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2021eko abenduaren 23a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak xedatzen dutenaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA /LETRADUA -JURIDIKOKO GOI-TEK.

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA /LETRADUA -JURIDIKOKO GOI-TEK.

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
|---|---|---|
| 1 | Debabarreneko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mendaroko Ospitalea-Mendaro / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Arlo Juridikoa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Kontratazio Administratiboa / Lanaldi Zatitua-Lanaldi zatitu ohikoa-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA, ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA, ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
|---|---|---|
| 1 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / AUOko Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / AUOko Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Gorlizko Ospitalea | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |

KATEGORIA: EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
|---|---|---|
| 1 | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Goierri-Urola Garaiko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Orokorrak-Biltegia/Hornidurak-Biltegia/Hornidurak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Gorlizko Ospitalea | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza-Fakturazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Finantza/Aurrekont/Erosket Zuzendariord-Aurrekon Kudeak eta Kontabilit Analitiko / Lanaldi Zatitua-Lanaldi zatitu ohikoa-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |

KATEGORIA: INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
|---|---|---|
| 1 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Informatika (Informazio Sistemak)-Informatika (Informazio Sistemak)-Informatika (Informazio Sistemak) / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 3HE-Data igarota |
| 2 | Bilbao-Basurtuko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Informatika (Informazio Sistemak)-Informatika (Informazio Sistemak)-Informatika (Informazio Sistemak) / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Informati/Informazio Sistem Zuzendariord-ESIetako Informatika / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Informati/Informazio Sistem Zuzendariord-ESIetako Informatika / Lanaldi Zatitua-Lanaldi zatitu ohikoa-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Informati/Informazio Sistem Zuzendariord-ESIetako Informatika / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Informati/Informazio Sistem Zuzendariord-ESIetako Informatika / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |

KATEGORIA: EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
|---|---|---|
| 2 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / AUOko Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 2 | Bilbao-Basurtuko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Debagoieneko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Donostialdeko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Komunikazioa-Komunikazioa-Komunikazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Gorlizko Ospitalea | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Tolosaldeko ESI | Lehen Mailako Arreta-Egitura orokorrak / Tolosaldeko ESIaren Administrazioa-Tolosa / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |
| 1 | Zuzendaritza Nagusia | Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Giza Baliabideen Zuzendaritza-Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariord-Euskara / Lanaldi Zatitua-Lanaldi zatitu ohikoa-Ez espezifiko gehiago / 4HE-Data igarota |

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ANTOLAKUNTZAKO GOI-TEK.

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ANTOLAKUNTZAKO GOI-TEK.

| Destino kop. | Zerbitzuetako erakundea | Destinoa |
| --- | --- | --- |
| 1 | Bizk. Os. Mentaleko Sarea | Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / BOMSeko Administrazioa-Bilbao / Ezagutzaren Kudeaketa-Berrikuntza/Kalitatea-Berrikuntza/Kalitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Ezagutzaren Kudeaketa-Berrikuntza/Kalitatea-Kalitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |
| 1 | Uribeko ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Kudeaketa Sanitarioa-Kudeaketa Sanitarioa-Kudeaketa Sanitarioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Data igarota |